

«Egintza humanitario-  
tzat» jo zuten orduan, eta  
horretaz galdetu zaion  
guztietan, Jose Barrio-  
nuevo Espainiako Barne  
ministro ohiak Jose Maria Larretxea etakidearen bahiketa saioa. Hiru  
GEOk (Grupo Especial de Operaciones-Operazioetako Talde Bere-  
zia) —Francisco Javier Lopez kapitaina, eta Sebastian Soto eta Jose

## JOXEMARI LARRETXEA

KUBAN DEPORTATUTAKO ETAKIDE OHIA

urriaren 18ko bahiketa saioan. Martin Barrios kapitaina non zegoen  
bazekielakoan harrapatu nahi izan zuten, eta non zegoen ez bazekien,  
harekin trukatzeko asmoarekin.

Maria Rubio sarjen-  
tuak— eta polizi in-  
spektore batek —Jesus  
Alfredo Gutierrez—  
hartu zuten parte 1983ko

# «Felipe Gonzalezek du nire bahiketa saioaren erantzukizuna»

52 urte zituen Larretxea  
hernaniarra 1971n pasatu zen,  
beste 200 lagunekin batera,  
EGI Batasunetik ET Ara,  
«ekintzak egin nahi eta EGI  
egonda ezinezko zelako».  
1975ean Iparraldera ihes egin  
behar izan zuen. 1984ko  
urtarrilean deportatu zuten  
Panamara eta urte bereko  
maiatzaren 1ean Panamatik  
Kubara eraman zuten. Hantxe  
hil zen herenegun gauean.

### ■ Nola gertatu zen zure bahiketa saioa?


1983ko urriaren 5ean bahitu  
zuen Erakundeak Martin Barrios  
kapitaina. Kapitaina zen bahitu  
zutenean, baina guk geneukan  
informazioaren arabera, bage-  
nekien komandante izendatzeko  
asmotan zebilela Espainiako Ar-  
mada.

### ■ Argitaratu da egun hartako eguerdian Hendaiko pisu batean Mujika Arregirekin eta kazetari espainiar batekin bazkaldu zenuela...

Oso litekeena da Mujika Arre-  
girekin bazkaldu izana, bere  
etxean bizi nintzelako, Hendaian.  
Bahiketa saioa Hendaian izan  
zen, ez, argitaratu duten bezala,  
Baionan. Baina ez nuen inongo  
kazetarirekin bazkaldu, hori se-  
guru. Arratsean etxetik atera  
nintzen lagun batekin egon behar  
nuelako; zazpi eta erdiak inguru  
izango ziren eta motor txiki ba-  
tean nindoan. Motorra lagun ba-  
ten alabak utzi zidan, ez zeukan  
gasolinarik eta etxetik 25 metro-  
ra dagoen gasolindegira joan nin-  
tzen lehendabizi. Ikusi behar  
nuen lagunaren etxe aldera abia-  
tu nintzen; zazpi eta erdiak edo  
zortziak inguru izango zen. Hen-  
daiako goi aldeko bidetik nin-  
doan, hondartzakoa hartu gabe,  
Donibanera joateko hartzen de-  
na. Hendaikatik kanpo nengoe-  
nean, Orrio deitzen zen auzoa  
baino pixka bat lehenago —oso  
jende gutxi bizi zen garai hartan  
auzo hartan— sumatu nuen auto  
bat atzetik gerturatzen ari zitza-  
dala oso astiro eta kolpea eman  
zidan atzetik.

### ■ Zuk ez zenuen igarri atzetik autoa bat segika zeneukanik...

Ez, inongo momentutan ez. Nik  
kolpea hartu eta, oreka galduta,  
lurerra jausi nintzen. Espaloi-  
arekin jo zuten motorrak eta zerral-  
do erori nintzen. Belaunak eta  
eskuak urratu nituen. Berehala  
hasi zitzaizkidan kolpeka eta  
buruan kaputxa jartzen saiatu



Jose Mari  
Larretxea,  
Habanen, Iazko  
azaroan,  
elkarrizketa egin  
zen egunean.  
M. OTAMENDI

ziren bahitzailak. Hiru ziren eta  
ezin izan nuen ezer egin haien  
aurka.

### ■ Ez zen lan erraza izango, zu orduan gizon sendoa zinen...

115 kilo baino gehiago izango  
nintzen. Hiru ziren, GEOak hi-  
rurak geroztik jakin denez. Mi-  
nutu erdi batez-edo jardun zuten  
kolpeka.

### ■ Aurre egin al zenien?

Ezin nuen. Lurrean nengoela  
gainera etorri zitzaizkidan eta ez  
nuen aukerarik izan.

### ■ Argitaratu denez, GEOak auto batean zihozten eta beste auto batean, atzerago, Amedo zihozan...

Nik bigarren autorik ez nuen  
ikusitako, eta hau da Amedo han ere  
bazebilela entzuten dudana lehen  
aldia. Joka ari zirela «Arrêtez!!  
Police!!» entzun nuen. Kolperen  
bat edo beste gehiago hartu  
nuen, baina berehala gelditu zi-  
ren. Gelditu bezain pronto lurre-  
tik altxatu eta bidea zeharkatuta  
pareko espaloira pasatu nintzen.  
Handik ikusi nuen ondorengo

### BAHIKETA

«Lurrean nengoela  
gainera etorri  
zitzaizkidan eta kolpeka  
hasi ziren»

### ATXILOKETA

«Oso misio delikatu-  
an zeuden, horregatik ez  
zioten Polizia  
frantziarrari aurre egin»

### ONDORIOA

«Ziur naiz, harrapatu  
banindute Lasa eta  
Zabalarekin bezala  
egingo zuketen,  
'garbitu'.

eszena: Hendaia aldera zihozan  
auto zuria eta ni jo ninduen  
autoa. Pertsona bat ari zen hiz-  
ketan ni jotzen aritu zirenekin.  
Pertsona horrek, niregana etorri  
eta polizia zela esanik, zer gertatu  
zen galdetu zidan. Hiru GEOak  
nirekin ahaztu eta autora sartu  
ziren. Hiru GEOek jo ninduten,  
ez ordea Gutierrez polizi inspek-  
toreak. Azken hau autoan egon  
zen, bolantean, GEOak joka ni-  
tuen bitartean.

### ■ Polizia sekretua, jandarma... zer zen polizi frantziar hura?

Bere auto pribatuan zihozan  
ba-karririk, ez zen zaintzan ari zen  
patruilla bateko kidea. Lanera zi-  
hoan, nonbait. Txamarra zuen  
gainetik eta azpitik jandarmen  
galtza urdinak.

### ■ Pistola erakutsita gelditu al zituen jandarmak GEOak?

Ez. Armarik gabe atxilotu zi-  
tuen. Erreflexu profesionalak  
eraginda ekin zion.

### ■ Nola da posible kaleko jandarme batek misio berezi batean zeuden hiru GEO eta polizi

### inspektore bat atxilotzea in- darra erabili behar izan gabe?

Oso misio delikatu-  
an zeuden. Aurreneko aldia zen polizi-  
a espainiarrek parte hartzen zute-  
na, horren era nabarmenean,  
atzerrian baimenik gabe. Hori  
naztoarteko harreman diplomati-  
koetan oso larria da. Seguraski,  
agindua izango zuten operazioa  
gaizki ateraz gero edo harrapatuz  
gero kito egitekoa. Bide diploma-  
tikotik konponduko zela.

### ■ Zer gehiago gogoratzen duzu une hartaz?

Jandarmak autoko giltzak es-  
katu zizkien espainiarrei eta  
irratiz-edo deitu zion Poliziari.  
Jandarmak esan zidan espai-  
niarrek esan ziotela poliziak zi-  
rela. Nik ezer ez nekiela erantzun  
nion. Paperak eskatu zizkidan  
orduan, eta nik ez nizkiola  
emango. Ea errefuxiatua nintzen  
galdetu zidan, nik baietz. Orduan  
Hendaiko poliziabururen baten  
izen bat (Lacarra jauna, Ren-  
seignements Generaux zerbitzu-  
ko buru zena Hendaian) esan zi-  
dan, eta nik baietz, ezagutzen  
nuela. Orduan erakutsi nizkion  
paperak. Poliziak berehala iritsi  
ziren eta Hendaiko komisariara  
eraman gintuzten denak.

### ■ Zu ere ospitalera baino lehenago komisariara...

Halaxe izan zen. Komisariara  
iritsi eta gutxira Hendaia-hon-  
dartzako sendagile batengana  
eraman ninduten, baina hau  
azaltzen ez zela ikusita oster-  
a komisariara eta handik Doniba-  
ne-Lohizuneko klinika batera.  
Klinika hartan hogeitaz inguru  
pasatu nituen.

### ■ Zer lesio zenituen?

Belaunetan eta begindoen;  
azken honek Cladius Clayrekin  
borrokan egin eta gerokoa em-  
aten zuen. Ez dakit zerekin jipoitu  
ninduten, baina handik hilabe-  
tera muinetan oraindik mina  
nuen. Kolpeak izan nituen, baina  
odola bakarririk erorikaren ondo-  
rioz isuri nuen. Beso batean he-  
zur baten fisura izan nuen.

### ■ Zer pentsatu zenuen polizi espainiarrak zirela jakin zenuenean...

Burutik ez zitzaidan pasatu ere  
egin GEO taldekoak izan zitez-  
keenik. Orduan, artean, ez ne-  
kien Lasa eta Zabala desagertu  
zirenik. Nik polizi frantziarrei  
esan nien polizi espainiarrak  
zirela. PAFeko (Aire eta Mugetako  
Polizia) poliziak etorri ziren, oso  
ezagunak errefuxiatuen artean,  
errefuxiatu ehizan ibiltzen zire-  
lako.

### ■ Zer zioten polizi espainiarrek,

**onartu al zuten poliziak zirela?**

Aurreneko unetik adierazi zuten zer ziren. Gero saiatu ziren bertsio sineskaitz batekin: nik, motorrean nindoala, iraindu egin nituela eta horregatik jipoitu nindutela. Baina gogoan dut nola bahiketa saioaren hurrengo egunetan Baionako epaitegira joan behar izan nuen, eta gela batean nengoela baten batek «hori Alvarez da» esan zidan, pertsona bat seinalatzen zidan bitartean.

**■ Une hartan erlazioatu al zenuen Martin Barriosen bahiketa zure bahiketa saioarekin?**

Atzetik eman zidaten kolpea ez zen normala izan. Beraz, modu-gatik beragatik ere ohartu nintzen zer edo zer arraroa zegoela. Bide hartan autoak abiada handian joaten dira eta, ohiko istripua izanez gero, kolpeak handiago behar zuen izan. Beldur ginen, Martin Barrios bahituta zegoela, guri ez ote ziguten erasoko; beraz, berehala konturatu nintzen nire bila zetozela.

**■ Zure bahiketaren helburua zu Martin Barriosekin trukatea al zen, Erakundeak Martin Barrios aska zezan?**

Nik dakidanez, oso zaila izango zen Martin Barriosen bahiketaren prozesua aldatzea. Eta kontziente naiz, are gehiago gaur egun, nolako heriotza izango nuen. Ziur nintzen bahituz gero nola bukatuko nuen, garbitu egingo nindutela. Egun batzuetan edukiko ninduten, torturatu eta tiro eman. Joxi eta Joxeani egin zieten jakinda, garbi daukat nik ere horrelako heriotza izango nuela.

**■ Argitaratu da Lasa eta Zabala bahitu zituztela Martin Barrios buruzko informazioa lortzeko eta hauek ez ez zekiten zuregana jo zutela...**

Ez dut garbi ikusten. Ikusten dudana da hura guztia hasiera bat izan zela, eta une hartan iruditu zitzaizkidan bi mili eta polimi bat desagertuz gero jendeak pentsa zezakeela bi aldean arteko gerra zikina zela. Hori pentsatu nuen lehen unean. Gero ikusi da edozein harrapatzeri jo zutela.

**■ Ospitaletik ateratakoan nora jo zenuen?**

Betiko etxera, neukan bakarre-ra.

**■ Eta polizia espainiarrak?**

Kartzelan eduki zituzten bi hilabete baino gutxiago. Svahn epaileak kalean jarri zituen epaiketara aurkeztuko zirela hitzemandu. Epaiketa egin zen, baina polizia espainiarrak ez ziren agertu. Ni neroni ere ez nintzen izan, orduko Kuban bainongoen kanporatuta. Instrukzioa epaileari garai hartan emandako azalpenekin egin zuten aktorerik gabeko epaiketa hura. Ez ni ez lau polizia espainiarrak ez ginen izan epaiketean. Lau polizia espainiarrak atxilotu zituen jandarmak beti eutsi zion bere lehenengo hitzari, alegia, ez zuen inoiz hasieran egin zuen deklarazioa aldatu. Geroago azaldu ziren polizietako batzuek, ordea, bai.

**■ Nola jokatu zuen Frantziako Justiziak zure bahiketa saioaren kasuan?**

Nazioarteko eskandalo diplomatikoa izan zenez, presio handiak izan ziren alde guztietatik. Frantziako Justiziak amore eman zuen epaiketa hartan, Hendaiako forenseak, fiskalak eta beste guztiek egin zuten be-

zalaxe. Estatu afera izan zen.

**■ Barrionuevok behin eta berriro adierazi du zure bahiketa saioa «egintza humanitarioa» izan zela...**

Nik ez dut sekula sinetsi ez Barrionuevoren ezta Santamariaren ere. In fraganti harrrapatu zituzten, ezin izan zuten ukatu polizia espainiarrak zirela eta defendatu behar izan zituzten. Gobernuaren erabateko baimenarekin egin zuten. Barrionuevok «egintza humanitarioa» izan zela onartu badu nik beste maila batera igoko nuke erantzukizuna.

**■ Zein mailatara?**


Felipe Gonzalez.

**■ Esaten ari zara Felipe Gonzalezek bazekiela aurretik...**

Horren arrisksua zen ekintza baten berri eduki behar zuen aurretik Felipe Gonzalezek. Ez dut esango Felipe Gonzalezek seinalatu zuenik Jose Marik, Frantziskok edo Mikelek izan behar zutela biktimak, baina bidea adierazi zioten eta Felipe Gonzalezek erabateko oniritzia zeukaten.

**■ GALen barruan sar al daitezke zure bahiketa saioa edo ekintza isolatua izan zen?**

Nik uste dut GALena dela. GAL taldearen siglak Mareyren bahiketarekin kaleratu ziren (1983ko abendua), baina aurretik sortua zegoen. Garbi dago Espainiako Gobernuaren politika izan zela. Aurretik ere izan zen makina bat talde —Batallon Vasco Español, AAA, ATE...—, baina eskuin mu-



Jose Mari Larretxea 1984tik zegoen Kuban deportaturik.

M. OTAMENDI

turraren eta bere inguruaren ekimena izan zen hura batik bat. GALen kasuan, estatu aparatuen ekintzak dira, eta hor ildo

politikoa markatuta dago. Beraz, dudarik gabe, Felipe Gonzalezek bazekien. Berak du GALen ekintzen erantzukizuna.

# «Justizia betearazteko bahitu genuen Martin Barrios kapitaina»

*ETApm VIII.ak Martin Barrios Espainiako Lur Armadako Farmazia kapitaina bahitu zuen Bilbon 1983ko urriaren 5ean. Publizitate karga handia zuen bahiketa gora-beheratsu hark eragin zuen, gerora jakin denez, Jose Maria Larretxea etakidearen bahiketa saioa Hendaian, hil beraren 18an, Lasa eta Zabala Baionan desagertu eta bi egunera. Urri madarikatua, deitu zaion bezala, 1983ko hura.*

**■ Zergatik bahitu zuten polimilik Martin Barrios kapitaina?**

Erakundeak bahiketa hura egiteko arrazola justizia bete zedin eskatzea izan zen. Bergako kuartela asaltatu zuten kideek 30 hilabete zeramatzen presondegian epaiketarik gabe, eta legea betez gero kalean behar zuten izan. Erakundeak bazekien hura zela Armadako kide bat bahitzen genuen lehen aldia.

**■ Dena dela, bahiketa hartan baldintzen sekuentzia izan zen. Lehendabizi, legea bete zezaren ondorioz, kartzelan zeudenak kaleratzea. Gero TVEko albistegietan Erakundearen komunikatua irakurtzea...**

Horrelakoetan gertatu ohi denez, bakan batzuk gerturatu zitzaizkigun zer edo zer eskaintzen. EAJko mezulari batzuk etorri zi-

ren, komunikatua irakur zitekeela eta adieraziz. Beste batzuk etorri ziren esanez lehendabizi askatu egin behar genuela eta gero komunikatua irakurriko zutela. Keinu bat egin behar genuela, baina etsaiak ez zuen sekula keinurik egiten. Diputatu bat ere jarri zen harremanetan gurekin [itzali egin du magnetofoia izena argitaratu ezin dela adieraziz]. Aspertuta geunden ketnuak egiten eta gogoratzen naiz TVEk ez zuela komunikatua osorik irakurri. Komunikatuan zeuden puntu guztiak aipatu zituzten, baina komunikatua irakurri ez zuten irakurri.

**■ Ahul al zegoen orduan ETApm VIII.a?**

ETApm garai hartan, horrenbeste zatiketarekin, ahul zegoen. Hori ezin da ukatu. Gu konbentzituta geuden ekintza harekin bukaeraino iritsi behar genuela. Militante gehienak ados zeuden jarerra harekin. Segurtasun osoa genuen. TVEk komunikatuaren puntuen aipamena egin zuenean berehala etorri zitzaizkigun EAJko mezulariak, «dortu da nahi zenuena» esanez. Guk ezetz, ez zela lortu nahi genuena. Martin Barrios hilik azaldu zenean EAJko mezulariek ezin izan zuten

ekintza hura asimilatu, ez zekitelako zenbateraino zegoen prest Erakundeak.

**■ Baina ematen du, denborarekin, askotan aipatzen den azken isats kolpea izan zela bahiketa eta hiliketa hura...**

Hala ematen du. Guk, orduan, bagenekien ahul ginela, baina gure barne eztabaidetan ilusio handia zegoen Erakundeak aurrera eramateko, indartu egingo zela. Beti esaten genuen ez zegoela lekurik bi erakunde izateko —ETApm eta ETApm—, gehiago zela batzen gintuena zatitzen gintuena baino. Gure ustez bat egin beharra zegoen, hasieran aski izango zen akordioak egitea bi erakundeen artean. Ekintza txikitzen ez, bai-



**«Frantziako Justiziak presio handia jaso zuen eta amore eman zuen»**

na handietan behintzat jakinarazi erakunde batek besteari zer edo zer larria egingo zuela data jakin batzuetan. Askotan gertatu baita erakunde batek egindako ekintza txiki batek arriskuan jartzea bestearen ekintza handi bat.

**■ Urteen poderioz nola ikusten duzu Martin Barriosena? Burugabekeria izan al zen?**

Ezta inolaz ere. Erabat asमितzen ditut, bai bahiketa baita hiltzea ere. Guk une hartan ikusten

**■ Zu bahitzen saiatu ziren lau GEO haiek bazekiten norengana jo ala itsu makilakadak ematen aritu ziren?**

Prentsak beti izan du horrelakoetan pertsonalizatzeko joera. Ni une hartan oso goi mailan jarri ninduten podiumean, eta gauza jakina da zuzenean nire bila etorri zirela. Hala adierazi dute Amedok, Santamaria jeneralak eta, berrikitan, Barrionuevok. Ni orduan ETApm-ko militantea nintzen, eta seguraski lehen gure inguruan ibilitako jendearen informazioarekin joan ziren niregana.

**■ Esaten ari zara garai bateko Euskadiko Ezkerran ibilitako batzuek salatu zituztela...**

Nik ez nuke esango salatu, baina ordurako Mariok Felipe Gonzalezekin eta Rosonekin harreman onak izanak zituen... eta esan egingo zieten zeintzuk gertatu ginen...

**■ Hori salaketa gogorra da...**

Nire iritzia da eta hori pentsatzen dut. Bazeuden bide batzuk informazioa pasatzeko eta informazio horren ondorioz iritsi ziren nigana. Triste da baina ETArekin Aretxabaletan atrakua egingo bat, Zalbide, harrapatu egin zutena, gaur Bellochen aholkulari da.

**■ Markatu al zaitu gertakizun hark?**

Zorionez ez. Ez zait gustatzen hartaz edozekin hitz egitea, ez da fribolizatzeko kontua. Tarteka pentsatzen dut, baina sendotu egin nau nire ideietan.

genuen militarrek boterean zue-dela. Eta hamabi urte pasatu direnean ikusten dugu militarrek zenbateko indarra daukaten boterean, hortxe dago CESID... Duela 12 urte jeneral gehienak Francok izendatutakoak ziren. Nik, erakunde hartako militante gisa, ekintza haren erantzukizun historikoa hartzen dut. Ez diot horri uko egingo.

**■ Zuek balezkoa eman zenioten Estatutuari...**

Gu independista beti izan ginen, batere zalantzarik gabe. Euskal Herriaren arazoa konpontzeko eta herri moduan zuzpertz nahi badu independetzia da bidea. Baina guretzat une historiko hartan hura ez zen posible eta Estatutua, berriz, aurrerapausoa zen. Betez gero. Berehala konturatu ginen, ordea, hura betetzeko borondatek ez zegoela.

Martxelo Otamendi  
HABANA

**OHARRA:** Egilearen oharra: Larretxearen Habanan 1995eko azaroaren 19an egindako elkarrizketa hau zabalagoa zen erreportal batean barruan argitaratzeko asmoarekin egin zen. Erreportai zabal horretan Larretxearen bahiketa saioa eragotzi zuen frantziar polizia jendokotasuna jasotzeko asmoa zegoen. Zorri-trarez, guk delako polizia aurkitu baino lehenago hil da Larretxea.